

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 2171

*EBAZPENA, 2021eko apirilaren 9koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, UPV/EHUko lanpostu bat izendapen askearen bidez betetzeko deialdi publikoa ebazten duena.*

Informazio eta Komunikazio Teknologien Gerenteordetzako Zuzendariak egindako txostena ikusita eta lanposturako proposatutako pertsonak 2021eko otsailaren 12ko ebazpenean (2021eko otsailaren 25eko EHAA) eskatzen ziren betekizunak eta ezaugarriak betetzen dituela ikusita-ebazpen horretan UPV/EHUko lanpostu bat izendapen askeaz betetzeko deialdi publikoa iragartzen zen-, ebazpen horren laugarren oinarria betez eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearekin bat etorriz (1989ko uztailaren 28ko EHAA). Gerentzia honek, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2021eko urtarrilaren 28an hartutako erabakia, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzioamendu arloak zehazteko dena (2021eko otsailaren 12ko EHAA) erabiliz, honako hau,

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Iratze Lasa Cervetto izendatzea behean azaltzen den lanpostua betetzeko:

- Izena: Kargudunaren idazkaria.
- Erref.: F 939.
- Eskala: Administraria/Administrari laguntzailea.
- Taldea: C/D.
- Zenbatgarrena: 24.
- Maila: 19.
- Hizkuntza eskakizuna: 2 ; derrigorrezko data: 2014ko urtarrilaren 31.
- Langunea: Informazio eta Komunikazio Teknologien Gerenteordetza.
- BE.
- Campusa: Bizkaia.

Bigarrena.– Izendapena EHAAn argitaratu den biharamunetik ondorioak izango ditu.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean. Nahiago bada, administrazio-auzietako errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Administrazio Auzietako Epaitegi egokian; horretarako hilabete bi egongo dira, Ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunear hasita. Hori guztia, Unibertsitateko Estatutuetako 160. artikuluan, Administrazio Prozedura

2021eko apirilaren 15a, osteguna

Erkidearen 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 8. eta 14. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioa, 2021eko apirilaren 9a.

Gerentea,  
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.